

Milaka pertsona mobilizatu dira Iruñean Palestinaren askatasuna aldarrikatzeko

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 19/05/2024

Palestinarekin Elkartasunak bi estatuen aterabide faltsuaren aurrean Palestinaren deskolonizazioa eta Israelgo Estatuaren suntsipena aldarrikatu du.

Atzo, maiatzak 18, milaka pertsona hartu zituzten Iruñeako kaleak Palestinarekin Elkartasunak egindako deialdiari erantzunez. Goizeko 12:30ak aldera abiatu zen manifestazioa Basotxo kaletik "Gora Palestinar Erresistentzia" oihuen artean. Ondoren manifestazioa hiriko erdialderantz joan zen "Boikot Israel, Palestina askatu" oihuen artean eta ikusi zenez Armadako etorbide guztia okupatu zuten. Ibildean zehar Palestinaren aldeko hainbat mezu ikusi ahal ziren pankarta zein margoketen bidez eta Espainiako Gobernuaren Delegaritzara heldu zirenean ekintza sinboliko bat burutu zuten honek Israelekin duen konplizitatea salatzeke. Carlos III. etorbidetik pasa eta gero Sarasate pasealekuan bildu ziren manifestariak eta han plataformaren ordezkariak agiri bat irakurri zuten.

Agirian adierazi zutenez azken hilabeteetan Ikusten ari garen sarraskia hitz bakarrez deskribatu daiteke, "genozidioa". Jarraian badela garaia "genozidioaren erantzuleei eta euren konplizeei" aurrez aurre begiratzeko eta badela garaia "Palestinaren aldeko borroka Israelen eta bere konplizeen aurkako borroka ere bihurtzeko" adierazi zuten. Bide horretan Palestinaren askatasuna eskuratzeko, errefuxiatuen itzulera bermatzeko, preso politiko palestinarren askapena lortzeko eta zapalkuntzarik gabeko palestina askea eraikitzeke, "ezinbestekoa dela deskolonizazioa eta Israelgo Estatuaren suntsipena" aldarrikatu zuten. Horrez gain, salatu zuten genozidioa ez litzateke posible izango mendebaldeko gobernuen "babes politiko, ekonomiko eta militarrik" gabe, izan ere, PSOE buru den Espainiako Gobernuak "esku batekin bi estatuen irtenbidea proposatu eta Palestina formalki aitortuko duela adierazten duen bitartean; beste eskuarekin estatu sionista armaz hornitzen" jarraitzen duela salatu zuten. Honen aurrean, esan zuten bi estatuen proposamena, irtenbide erreala baino, beste "promesa faltsu bat" dela. Batetik, proiektu sionistaren "izaera kolonialak ezinezko egiten duelako palestinaren estatu bideragarri" baten sorrera eta bestetik "mendebaldeko bloke inperialistak ez duelako bere kabuz onartuko Ekialde Hurbilean, Asia mendebaldean, duen aliatu pribilegiatua ahultzea". Geroago, internazionalista iraultzaileen izan beharreko posizioa argitu zuten, "Israelgo Estatuaren desagertzea eta Palestinaren deskolonizazioa" eta horretarako hurrengo eginkizunak jarri zituzten:

1. Palestinarren erresistentzia eskubidearen defentsa egitea.
2. Israelgo Estatuaren adierazpen politiko, ekonomiko eta kulturalak desnormalizatu eta borrokatzea.
3. Sionismoaren konplize diren enpresa, gobernu eta ezker-eskuineko alderdi politikoak presionatzea harreman oro eten dezaten. Boikota, desinbertsioak eta zigorrak.

4. Kapitalismoak sortzen duen gerra eta genozidioaren kontra, herri desberdinetako langileon/zapalduon elkartasun internazionalista antolatzea.

Bukatzeko Palestinarren erresistentzia "mundu osoko zapalduontzat eredugarri izaten ari den honetan, guk ere biderkatu dezagun sionismoaren eta bere kolaboratzaileen kontrako borroka" gehitu zuten.

(Irudia:Unai Beroz)

<https://eh.lahaine.org/milaka-pertsona-mobilizatu-dira-irunean>